

IRITZIA  
Unai Villena

ERREPORTAIA  
Zer da Internet?

UDALETXETIK  
Gazteentzako lokala  
Iortu du Udalak

GEHIGARRIA  
txikiBARREN


BERBETAN  
Ana Isabel Marin  
eta Iruñe Araujo  
diseinatzaile  
gazteak

KIROLA  
Eskolarteko jokoan  
sari banaketa

# BARREN

1997ko ekainaren 13a  
V. urtea - 198. zkia.

E L G O I B A R K O A S T E K A R I A




Interneten sarean  
harrapaturik




CCSI aquitaine  
pôles charentais

- 
- 
- 



- 
- 
- 





UNAI VILLENA

Atal hau ez da **BARREN**en editoriala. Urtero 15 lagun inguru aukeratzen dira eta txandan-txandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak beste, pluraltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile bakoitzak nahi duena aukeratzen du.

## Aztertzen

“Bazen kanta bat gutariko asko lan egi-teagatik eskolara joan gabe gelditzen zela adierazteko: Eskola ume / sasiz sasi / asko janda / gutxi ikasi”, irakurri dut Joan Mari Irigoienen elaberri batean, hitzok bere irudimenetik edo besteren baten ahotik atera dituenentz ez dakidalarik. Ondoren zera gaineratzen du: “...ez dakit ba zer esan, sasiz sasi ibilita ere asko ikas daitekeela uste baitut”.

Txunditurik gelditu naiz gauzek beren denbora-leku kontestuairekiko zeinen lotura estua duten mirestuz, nola egiak gezur bihur daitezkeen erreparaturaz. Izan ere, gaur egun ezer gutxi ikas daiteke sasiz sasi ibiliz, eskolan ere askori zerbait ikastea zaila gertatzen baitzaio. Eta arrazoi askorengatik bizi izan ez ditudan garai haiek lehen minez gogoratzen ihardun dut, baina beste askorengatik orainera itzuli naiz berehala. Ekaina: azterketak, uda, dauzkagun erosotasunak... Etor-kizunera ere salto egin dut: erosotasun horiek sortzen dituzten arazo konponezinak, ikasketak: lan aukera...

Ezinbestean, oraina eta etorkizunaren artean nagoela konturatu naiiz, bigarrenak kezkatzen nauelarik. Dirudienez, gazteok gero eta zailagoa dugu ikasketak burutzea, lana aurkitzearena are okerrago. Nik, horri

dagokionez, ez dut guztiz pesimista izan nahi, baina ingurunera begiratu eta agerian dagoena aztertuz zenbait koska aurkitzen ditut.

Egia da orijinaltasuna galtzen ari garela, galerazten digutela edo berez galdu dela, gizartearen beharren eraginez-edo. Horregatik, gazteoi etorkizunean zer izan nahi dugun galdetzen digutenean askok arkitektura, injinerutza, kazetaritza edo azkenaldian hain modako diren beste karreraren bat ikasi nahi dugula diogu. Gure notek ahalbidetzen badute, ikaskuntza masifikatuan parte hartzera abiatzen gara. Hortik aurrera bakoitzak bere istorioa idazten du.

Hala ere, ez dugu nahikoa ikasketak amaitzearekin, hizkuntzak jakitea (zenbat eta gehiago hobeto) ezinbestekoa da, eta ordenagailu bat era-

biltzen ez badakizu, akabo! Ahal izanez gero, atzerrian ikasitakoa izatea hobe eta, noski, lan bat aurkitzeko garaian esperientziak eta curriculumaren luzerak asko balio dute: entxufea, berriz, zenbait kasutan (gehiegi-txotan) ezinbestekoa da.

Horregatik, eta hau gaur egungo gazteon problematikaren zati txiki-txiki bat besterik ez delako, beste garai batzuetan bezala bizitza bera gauza guztien irakasle bakarra izatea nahiko nuke. Ezinezkoa da.

“Ez dugu nahikoa ikasketak amaitzearekin, hizkuntzak jakitea ezinbestekoa da, eta ordenagailu bat erabiltzen ez badakizu, akabo!”





Nafarroa enparantza, 2  
20870 ELGOIBAR  
☎ 74 41 12  
Publizitatea:  
☎ 74 37 04  
Faxa: 74 37 04

## ARGITARATZAILEA

Elgoibarko Izarra

## LAGUNTAILEA

Elgoibarko Udala

## ZUZENDARIA

Ainhoa Lodoso

## ERREDAKZIO KONTSEILUA

Andres Alberdi,

Rosa Agirregabiria, Mikel Kortabitarte

## KAZETARIAK

Ainhoa Lodoso, Jasone Osoro

## PUBLIZITATEA

Miren Moreno

## MAKETATZAILEAK

Mikel Cornejo

## ADMINISTRATIOA

Amaia Martin

M. Angeles Ortuoste, Rafa Alvarez

## KOLABORATZAILEAK

Irati Agirreazaldegia,

Gemma Agirregomezkorta, Itziar Ajuria,

Ion Arrieta, Agurtzane Arriola,

Edurne Bilbao, M. Angeles Exposito,

Amaia Gorostiza, Juanito Gorostiza,

Ane Guilló, Jon Gurrutxaga,

Antton Iriondo, KOKOE,

Imanol Larrañaga, Javi León,

Jokin Martinez, Juan Luis Mugertza,

Ongarri Zine Kluba,

Pello Rubio, Ixidor Solupe,

Leire Urkidi,

Unai Villena eta Julen Zabaleta

## BANAKETA ARDURADUNA

Imanol Larrañaga

## INPRIMATEGIA

Gertu Koop. E.

## TIRADA

4.000 ale

## LEGE GORDAILUA

SS-1.038/92

## ISSN

1133-021X

Elgoibarko Udalak, Eusko  
Jaurlaritzako Kultura  
Sailak eta Foru  
Aldundiak diruz  
lagundutako  
aldizkaria.



## Elgobartik Arantzazura erromesaldia

Joan den igandean, hilak 1, gure Parrokiatik Arantzazura izan genuen erromesaldia zoragarria izan zen. 80 bat lagun izan ginen, denok otoitz giro eta batasunean, maitasunezko eguna pasatzen.

Eguraldi euritsua izan arren, hainbat lekutan uholdeak ere, guri ez zigun eguraldi "txar" horrek ezertan eragin. Nahiz eta kanpoan ekaitza edo elurtea izan, bada poz guztien poza nork bere barruan aurkitzen duenean, barruko eguzkiak dena gaintitzen baitu.

Gure Elgoibarko herri maitea, familiak, bahituak, espetxeratuak, atxilotuak, gaixoak, bakardadean bizi direnak etab., denak gogoan izan genituen gure otoiz apaletan. Gero bazkari eder eta merke baten ondoren Pakearen aldeko diapositibak ikusi, Arantzazuko Amari agur egin eta etxeratu ginen denok pozik, hurrengo urtean, Jaunak nahi badu, berri ere joateko asmo onarekin.

Maite Vallejo

## Garate eta Gaztetxea

Ez zara zu izan Madalako Gazte-  
txea bota zutenetik, 6 urtetan zehar Elgoibarko gazteontzat bilgune bat beharrezkoa dela herri osoaren aurrean behin eta berriz aldarrikatu duenetakoa; aitzitik, denbora honetan guztian jauregiko ateak itxita eduki dituzu, gure ekimen guztiak zapaltzen saiatu zara, eta orain, gazte guztien aurrean, amore eman duzunean, zure buruari lorak botatzen dizkiozu, meritua zurea balitz bezala.

"Ondoraino busti" zarela? Dago-kigun eskubide bat onartzea besterik ez duzu egin, eta Elgoibarko gazteok badakigu hori.

Lorea

## GALDERAK

◆ Herritar bat etorri zaigu galdera honekin: **“Zergatik edo zertarako desmontatu dute San Frantzisko iturria? Berriz martxan jar-tzeko asmo-rik bai?”**

Hirigintza burua den Jose Mari Oruesagastik eman digun erantzuna hauxe da: **“Gure asmua itxurrixa hasieran zauan moduan jar-tzia da, ahal dan bezain laster. Itxurri-xan goi partian zaozen ainge-rutxua eta arraina apurtu-ta zaozen as-**



palditik. Horregatik itxurri-xan gorputza Eibarko ALFA-LAN enpresara eruan dou, aingerutxuakin batera montatzeko. Itxurri orijinala erreku-peratzia nahi dou, kañuak zian bezelakuak izatia eta montatzen danian fokoren bat ere ipiniko jako”.

## KEXAK

◆ **Merkatu plaza ondo-ko beira kontenedorea tokiz aldatzeko** eskatu nahi dio ONCEko kabinan egoten denak Udalari, **“batzuetan, batez ere bero handia dagoenean, ozpin usain handia egoten da”**. Lehen ere esan omen zion zegokionari baina kontenedoreak toki berean jarraitzen du.

◆ Herritar bat etorri zaigu honako kexa honekin: **“King-Kongeko zubiko barandilak oso egoera txarrean daude. Ugerra dute eta ondorioz erdi solte**

daude. Ezbeharren bat gertatzeko arriskua dagoela ikusten dut”.

◆ Emakume batek deitu digu San Frantzisko kalean errekaldera bizi den **emakume bat zakar poltsa ibaira botatzen** ikusi zuela esateko. Gainera, jende gehiago ikusi omen du gauza bera egiten.

◆ Pilarreko ikasle batek **Pilarrerera doan zubiko kale-joia zakarrez beteta** dagoela salatu nahi du, **“pasabi-dea oztopatzen dute, gainera. Zertarako daude kontenedoreak?”**.

## BAI, ESAN?



**Evaristo Rodriguez**  
Leizarpe  
Espeleologia  
Taldeko kidea

**Aste honetako telefono deia Leizarpe Espeleologia Taldeko presidentea den Evaristo Rodriguez-i luzatu diogu. izan ere, entzun edo irakurriko zenuen Ekaingo kobazuloko erreplika egiteko asmoa duela Debegesak (Elgoibarko Udala tartetan) Astigarribian. Orain, erreplika Zestoan egiteko beste proiektu bat aurkeztu du hango Udalak. Gai honi berba egiteko deitu diogu Evaristori.**

**– Ez al dira behintzat bi proiektuak egingo.**

- Aspaldi komentatu zien Leizarpe Espeleologia Taldeak Udal ezberdinei Ekaingo margoen erreproduktzioak egiteko. Une hauetan badirudi bi proiektu paralelo daudela: bata Zestuan eta bestea Astigarribian, Deba Behe osorako izango litzatekeena.

**– Ezagutzen al dituzu bi proiektuak? Zein gus-tatzen zaizu gehiago?**

- Bi proiektuak euren bultzatzaileak dituzte, baina guk nahiago dugu Astigarribiako Ekain II proiektua egitea. Hartara, erreproduktzioak garrantzi handiko zona arkeologiko eta espeleologiko batean kokatu-ko litzateke.

**– Ekaingo pinturak munduko garrantzitsuenen artean daude. Zer da bertan ikus daitekeena?**

- Antzinako edozein margo ikusterakoan erabat ezezaguna zaigun urrutiko iraganera bidaiatzen dugu: historiaurrera, hain zuzen. Hau beti da erakargarria. Ekaingo margoak ikusteko aukera duten guztiak ikusitakoarekin zeharo gustura geratuko diren uste-koa naiz. Nik oraindik ez ditut ikusi, nahiz eta bada-akit nolakoak diren. Astigarribian nahiko nituzke ikustea. Zaldiak, hartzak, bisontek,... denetik dago baina zaldiak dira nagusi.



**CRISTALERIA  
ELGOIBARRESA C. B.**

Bidriera artistikoak  
Obra komertzialak

Orasandi 12 behea  
Tel-Fax: 74 04 89



**Gabiola  
GESTORIA**

Errenta Aitorpena egiteko azken eguna ekainaren 25a  
**Guk lagunduko dizugu LEHEN BAIT LEHEN EGITEN**

San Frantzisko, 22 - Tel-Faxa: 74 07 97 - ELGOIBAR

# Zer da Internet?

*Modem-a, Web orriak, software-a, korreo elektronikoa, internetauta,... Internet inguruan gauza asko entzun izan da aspaldian. Badirudi etorkizuneko komunikabiderik nagusiena izango dela eta ordenagailuaren bitartez elkar komunikatuko garela, informazioa jasoko dugula, erosketak egin ahal izango ditugula... Hori guztia etxetik atera ere egin gabe. Halere, batean eta bestean entzun eta irakurri dugun hitz horren atzean zer izkutatzen da? Zer da Internet?*

Internet munduko sare informatiko handiena da. Sareen sare izugarri handia da, mundu osoa bere baitan biltzen duena eta etengabean garatzen eta birdefinitzen ari dena.

Demagun bi lagunek ordenagailu bana dutela eta bakoitzak bere ordenadorean hainbat programa eta eduki desberdin dituela. Bi lagunek eduki hauek konpartitu nahi dituzte eta, horretarako, ordenagailuak kable baten bidez konektatzen dituzte. Bakoitzak bere etxetik, besteak uzten dizkion edukiak erabil ditzake, hau da, Internet sarean konektatuta dagoenak, beran nahi duen informazioa bakarrik eskaintzen du eta besteak uzten diotena jaso dezake. Hirugarren lagun batek ere aukera du beste bien ordenagailuetara konektatzeko eta guztiak erabil ditzakete besteen edukiak. Zenbat eta lagun gehiago konektatu, orduan eta gauza gehiago izango dute guztiak aukeran.

Hau da gutxi gora-behera Internet eta, batzaz beste, mundu osoan 60 milioi pertsona daude konektatuak. Ordenagailua duten milioika pertsonek elkar komunikatu eta informazioa pasa diezaiokete elkarri Interneti esker.

Etxean, lantokian, bidaiatzen ari garela... edozein toki eta momentutan posible da Interneten sartzea. Honela, munduko edozein herritako pertsonekin jar gaitezke harremanetan.

## Zer jakin behar da?

Internet erabiltzeko ez da ordenagailuetan aditua izan behar. Telefonoa eta telebista bakoitzaren ezaugarri teknikoak ezagutu gabe erabiltzen dakigu eta Internetekin gauza bera gertatzen da, eta erabilpena oso sinplea da. Denbora oso gutxian zer egin nahi den erabakitzeak zalantza handiagoa sortzen du. Izan ere, internetek aukera zabala eskaintzen du eta ia dena egitea posible da ordenagailuaren bidez eta etxetik atera gabe. Gainera, Interneten nabigatzen ikasten duenak gero eta gehiago jakin nahi du, zenbat eta barrurago sartu, orduan eta gehiago pizten da jakinmina eta, poliki-poliki, amaigabea den sarean gehiago barneratzen joaten da.

## Hastapenak

Internetera sartzeko beharrezkoak dira ordenagailua (486 eta, gutxienez, 8 megako memoria duena), telefono linea, modem-a (28.000 Bps-ko abiadura gutxienez), Interneterako software-a eta enpresa hornitzaile batean kontua zabaltzea (batzaz beste urteko 18.000 pta. balio du konektatzeak eta aukera



da go nahi beste aldiz erabiltzeko). Modem-aren bidez Internet sarean dauden ordenagailuekin jar gaitezke harremanetan. Telefonikak jarri duen In-fovíari esker banatzaile desberdinen bidez munduko edozein ordenagailurekin jar gaitezke harremanetan herri mailako dei baten prezio berdinean, 129 pta. orduko.

## INTERNET SAREAN EZ GALTZEKO HIZTEGIA

Interneten konektatzeak 60 milioi erabiltzaile baino gehiago dituen komunitate elketroniko batean sartzea suposatzen du. Horrek esan nahi du, nahi beste informazio jaso daitekeela Internet-en bidez. Hona hemen Internet sarean ez galtzeko jakin behar diren zenbait kontzeptu:

### Internet

Mundu osoko ordenagailuen konexioa. ordenagaile pertsonalak superordenagailuetara konektatzen dira eta horiek guztiek sare bat osatzen dute.

### Nabigatzaileak

WWW orrietan dagoen informazioa jasotzeko behar diren programa bereziei deitzen zaie nabigatzaileak. Netscape Navigator, esate baterako, nabigatzaile bat da.

### Modem

Modem hitzak modulatzaile-desmodulatzaile esan nahi du. Hau da, ordenagailuak modem-a behar du telefono bidez jasotako informazioa interpretatzeko.

## World Wide Web

World Wide Web orriak Interneteko gauzarik ikusgarri eta berri-tzaileena dira. Hitz, irudi eta ikonoetan klik eginez, arlo batetik bestera era azkar eta erraz batean pasatzen da. Astero ehundaka arlo berri sortzen dira, guztiak gai desberdinei buruzkoak. Orri askok multimedia ezaugarria dute, bideo eta musika barne. Web orri batean sartzeko modem bat eta nabigatzaile bat beharrezkoak dira. Web orrietan denetik dago, egunkaria irakur daiteke, irrata entzun, ikasi, jolastu, erosketak egin daitezke... Izan ere, gaur egun, munduan dagoen biztanle kpurura baino handiagoa da Internet sarean dagoen Web orri kopurua eta kontuan hartu behar da orri bakoitzak informazio desberdin bat ematen duela.

### Links

Web orrietan links edo lotura deitzen direnak daude. Horien bidez sareko edozein arlorekin jar gaitzake harremanetan. Demagun, esate baterako, musikari buruzko dokumentu bat ari garela irakurtzen eta Euskadiko Orkestari buruzko informazioa sakondu nahi dugula. Link horien bidez Euskadiko Orkestari buruzko informazio zabala jasotzen duen Web orrietara joan gaitzake.

Era berean, aukera dago abesti konkretu bat gure ordenagailuaren bidez entzuteko, bideo txiki bat ikusteko...

### Bilatzzaileak

Esan bezala Web orri asko daude Internet-en. Orri bakoitzaren helbidea dakigunean erraza da aurkitzea baina

bestela, "Bilatze mottorrak" deitzen direnak daude, hain zuzen, topatu nahi dugun informazioa bilatzen laguntzen digutenak.

### Korreo elektronikoa

Korreo elektronikoaren bidez, Internet sarean sartuta dagoen munduko edozein pertsonari mezuren bat bidal diezaiokegu. Mezuak testuak, irudiak eta kalkulo orri baten artxiboak izan daitezke eta hartzailea konektatu arte irauten dute. Korreo elektronikoa mundu osoarekin harremanetan jartzeko era merke eta azkarra da.

### Fitxeroen transferentzia (FTP)

Internet-ek softwareen gigabyteak eta milioika artxibo ditu eta horietara FTP (Fitxero Transferentziaren Protokoloa) izeneko prozesu baten bidez irits daiteke. Horrela, sarrera publikoa duen ordenagailu batera konektatu eta disko gogorrean artxiboak koptatzea posible da.

### Eztabaida taldeetan parte hartu


Gairik gustukoenei buruzko eztabaidak izan ditzakegu Internet-iesker. 15.000 eztabaida-talde baino gehiago daude eta bakoitzak gustukoena aukeratu eta zuzenean har dezake parte. Era berean, gai konkretu bati buruzko zerrenda batean sartuz gero, gai horri buruzko informazioa jaso daitezke.

### Zuzeneko komunikazioa

Beste erabiltzaile batekin hitzegin edo jolasteko era asko daude. Elkarriketak (teklatuaren bidez hitzegitea denbora errealean) oso arruntak dira eta jolasei dagokionean, jolas desberdinak daude aukeran eta, nahi izanez gero, erabiltzaile talde baten aurka joka daitezke.



# Ba al daki- zu zer den Internet?



**ALEX ARCE**  
23 urte, garbitzailea

Ordenagailuen lotura telefono bidez. Niretzat momentuz ez dauka inolako erabilerarik eta gainera, ez naiz ondo moldatzen ordenagailuekin.



**JOSU FERNANDEZ**  
40 urte, forjatzailea

Gutxi gora-behera. Ordenagailuen bidezko komunikazioa da, egunkari handi bat balitz bezala. Uste duguna baino lehenago sartuko da etxeetan.



**ELISA POREZ**  
27 urte, irakaslea

Ordenadorekin lotuta dago baina ez dakit zehazki zer den. Ez daukat interesik. Eskolan ikasi naban zeozer ordenagailuei buruz baina ahaztu jata.



**ITZIAR LOIOLA**  
17 urte, ikaslea

Entzun dot informazio pila bat lortu leikela baina ez dot sekula erabili. Momentuz ez dot bihar baina gerora lanerako inportantia izango da.



**NORA IZAGIRRE**  
18 urte, ikaslea

Etxian dakat. Ordenadoria erosi gendun eta berak zakan. Informazio pila bat daukazu sare batian eta nahi dozuna erabil dezakezu. Ondiok ikasten nao.



**MANUEL POREZ**  
52 urte, mandrinadorea

Bai, mundu osoko ordenadoreak lotzen dituen sarea da. Informazio asko dago baina arautu egin beharko litzateke, pornografia eta antzekoak ere badaude eta.



## Elgoibarko Izarra Elkartearen LAN ESKAINTZAK

**KAZETARI-KOLABORATZAILE  
BAT BEHAR DA**  
astebukaeretan **BARREN**en  
lan egiteko.

Atxutxiamaika taldeak  
**BEGIRALEAK BEHAR  
DITU** uztailean lan egiteko



Eskatzen da:

- Euskaraz ondo jakitea
- Kazetaritza mundua ezagutzea
- Erretratuak ateratzen jakitea

**IZENA EMATEKO**  
ekainaren 20 arte

**INTERESATUEK**  
**Elgoibarko Izarra K. E.,**  
**Ubitarte, 4ra**  
**(74 16 26 telefonoa)**  
jo dezatela.

Eskatzen da:

- 18 urte izatea
  - Euskaraz ondo jakitea
  - Umeekin lan egiteko gogoia izatea
- IZENA EMATEKO**  
ekainaren 16tik 20ra



# ISPILUA- DRI DEGIRA




María José  
González

OLASO tabernakoa


- Zer aurkitu nahi zenuke ke artean?
- Giro alaia eta jendea ondo pasatzen.
- Eta zer izkutatuko zenuke ke artean? - Inbidia.
- Egun argiz egiten ez duzun zer egitera ausartuko zinateke gaueko iluntasunean? - Egunez eta gauez pertsona bera naiz, gauza berdinak egiten ditut.
- Noren aurpegia ikusi nahi zenuke barraren beste aldean? - Tom Cruise-rena, gogokoen dudana aktorea da.
- Nori ukatuko zenioke tabernara sartzea?
- Printzipioz inori baina norbait atsegina ez den zerbait egiten egongo balitz, jendearekin sartzen... horri bai.
- Eta nor gonbidatuko zenuke? - Irribarrez datorren edozein.
- Zein abestik jartzen zaitu dantzan?
- John Paul John-en "Love is in the air".
- Kafe-osteko tertuliarako musika? - Musika klasikoa.
- Maitasun arazoak alkoholetan ito al dituzu sekula?
- Ez dut inoiz edan. Penak malkotan itotzen ditut.
- Egin entsalada bat bizitzako beharrezko elementuekin.
- Osasuna, maitasuna eta nor bere buruarekin gustura gotea.
- Bizitzako zer botako zenuke zabortegira?
- Gauza asko baina bat esatekotan, arrazakeria.
- Loterian mila milioi tokatuko balitzaizkizu?
- Familian banatuko nuke eta bidaia bat egin Mexikora.
- Estresa gainetik kentzeko? - Onena bainera ur bero eta aparrez bete eta ordubete lasai egon musika entzuten.



"Nik gehiago dakit etxean daukagunetik"



"Lan aukerak ugaritu egin zaizkit hari esker"



"Harreman zuzenagoa eta berehalakoa daukat bezero eta hornitzaileekin"

- Konexioa
- WEB espazioen alogera
- Zerbitzaile segurua
- Domeinuen gestioa
- PYMES PACK
- WEB orrien diseinua
- Formularioen diseinua
- Programazioa (datu baseekin, bilaketa interaktiboak...)

## INTERNETi eta,

## noski,

# Softlan

SOFTLAN Internet  
Pedro Muguruza, 13  
20870 ELGOIBAR  
Tel/Fax: (943) 74 43 61/06 82  
Http://www.softlan.com  
E-mail: desarrollo@softlan.com  
internet@softlan.com

## ● Hilario Frailerin heriotzaren epaiketa

Donostiako Auzitegiak asteazken goizean eman zuen ezagutzera Hilario Fraile elgoibartarraren heriotzaren inguruko epaiketaren sententzia. Ustezko hiltzaileak aita-eme eibartarrak ziren eta froga faltagarentik aske uztea erabaki du epaimahai herrikoiak. Endika Iriondo elgoibartarraren testigantza ez du froga bezala hartu epaimahaiak eta horregatik, bi inkulpatuak aske uztea erabaki du. Akusazioak sententzia errekurritzeko asmoa dauka.

## ● Sabotaia Karakaten

Joan den larunbat goizean Karakateko antenaren oinarria hautsi eta kableak moztu zituen norbaitek. Goizeko 7ak aldera izan zen gertakaria eta arratsaldeko 7ak arte telebistatik ez zen ikusi Elgoibar osoan.

## ● Txankakua Merkari Elkartea, OTA ipintzearen aurka

Txankakua Merkatarikari Elkarteko Batzordeak prentsa ohar bat kaleratu du Udalak hirigune osoan OTA jartzeko duen proiektuaren aurka dagoela adieraziz. "Txankakua ez du uste Elgoibarren bizi den trafiko arazoari aurre egiteko OTA jartzea soluziorik onena denik, agian merkeena eta bizkorrena izan daiteke". BARRENen argitaratu genuen kale inkesta batean herritar gehienak OTAren aurka zeudela ere aipatzen dute. Prentsa oharrean hainbat galdera lutzatzen dituzte: "OTA biguna biztanleentzat? Zein iraupekin? Zein kosturekin?. Txankakuako batzordekideok beste bide batzuk bilatu behar direla uste dugu".

## 500 lagunetik gora hartu du parte elizako obren ikustaldietan

**J**. M. Setien gotzainak meza eman zuen domekan parrokiako berritze lanak inauguratzeko. Bi ordu inguru iraun zituen mezan eliz agintariak, Udal agintariak eta herritarrak elkartu ziren.

### Lanen bisitaldiak

Elizako Lanen Batzordeko Luis Bilbao esan digunez, zehatza ez bada ere, 500 lagunetik gora izan da elizako obrak ikustatzen, "jende nagusia eta umeak batez ere". Bisitaldi bakoitzak hiru ordu laurdeneko iraupena izan du eta ibilbidea honakoa izan da: eliz-do-

rerra igo, kupulari buelta eman, leihotik aldea ikusi eta erlojuaren gela bisitatu. Luis Bilbao azaldu bezala, "egon izan dia erlojuaren kanpaiak dauden lekuraino igo dianak. Batzuk emozionau ere ein zian gerra sasoiko kanpaian istorixak entzutian". Bisitetan erloju zaharra eta berriaren arteko ezberdintasunak azaldu zitzaizkien, egurrezko zutabeen egoera nolakoa zen eta zutabe barruetan burdinezko errefortzuak jarri direla ere esplikatu zitzairen. Bisitaldian gidari modura Pedro Artola, Luis M. Iriondo eta Luis Bilbao aritu dira.



### Edorta Kortadiren hitzaldia

Joan den ostegunean Edorta Kortadi Arte gaietan adituak elizari buruzko hitzaldia eman zuen parrokiaren. 100 bat lagun aurrean, eliza eraikitze behar izan ziren 150 urteetan, eraikuntzak jasan zuen estilobilakaeri buruz berba egin zuen.

## Mekanikako ikasle izandakoak Ingalaterran aritu dira lan-praktiketan

**A**rgazkikoak Manchester hirian eta Essexeko konterrian egon dira 3 eta 4 hilabetez, enpresetan praktiketan. Gehienak administratzen aritu dira, bat izan ezik, automozio tailer batean aritu dena. Rosa Aranda elgoibartarra Manchesterreko Collegean egon da lanean adimistrari gisa eta komentatu digunez, "lan erritmoa oso lasaia da eta lagun giroa da nagusi". Sorluzeko Sara De Migel-ek, instalakuntzak egiten dituen enpresa baten egin ditu praktikak "eta janaria izan ezik, dena oso positiboa izan da". Alderik negatiboa, "lanean erropa formalak jantzi beharra izan da".


Hauetz gain, 12 ikaslek 15 egun igaro dituzte Manchesterreko College-n bertako ikasleekin finantzari analisiari buruzko proiektua egiten. Herri Institutuak Europako hiru proiektutan hartzen du parte: Leonardo, Socrates eta Now.

Elgoibarko Institutuarekin batera, programa hauetan partaide dira Alemania, Frantzia, Holanda, Belgika eta Britainia Handia. Nazioarteko programei esker 75 ikaslek egin dituzte praktikak atzerrian azken urteetan.



## Unai Villenak poesiako Urruzuno saria irabazi du

Eusko Jaurlaritzak antolatzen duen Urruzuno literatura lehiaketa irabazi du Unai Villena 16 urteko elgoibartarrak, poesia arloko A mailan. Epaimahaikideak Juan Kruz Igerabide, Joxemari Iturralde, Patxi Zubizarreta, Lourdes Otagi eta Jose Mari Satrustegi izan dira. Unaik komentatu digunez, bi lan aurkeztu zituen poesian, baina “Mugak” izenekoak bakarrik jaso du saria. “Beste poesia, prosako ipuin batetik atera nuen baina ez nintzen oso gustura geratu”. Saritutako lana, “Mugak” izenburukoa, hiru poesiak osatzen dute. “Bata heriotzari buruzkoa, bigarrena naturari buruzkoa eta hirugarrenak emagaldu baten inguruan hitz egiten du. Hiruek jasotzen dituzte ‘mugan’ dauden egoerak”. Iaz ere irabazi zuen Unaik lehiaketa honetan poesiako saria. Gaur egun Batxilergo zientifikoa ikasten ari da Herri Institutuan.



## Ikasturte amaierako dantza jaialdia

Inazio Bereziartua musikeskolako dantza eskolako ikasleek ikasturte amaierako jaialdia egin zuten joan den ostegunean Herriko Antzokian. 280 bat ikasle aritu ziren dantzan, 6 urtetik hasi eta 16ra bitartekoak. Aretoa bete-betea zegoen eta ikasleek txalo beroak jaso zituzten guraso, irakasle eta herriarren aldetik. Eskaini zituzten dantzen artean modernoa eta klasikoa ikusteko aukera izan zen.



## LAB sindikatua erreformaren aurka

LAB sindikatuko kideek kontzentrazioa egin zuten joan den ostiral goizean San Frantzisko iturri parean Lan Erreformaren aurkako jarrera azaltzeko. Aldi baterako kontratuak, kontratu “mugagabe berria”, despido objetiboak erraztu eta merketu egiten dela, etab. salatzea zen kontzentrazioaren asmoa. Era berean, hitzarmenean lan banaketa, lanaldiaren murrizketa eta ETTei buruz, “espresio erretorikoak” baino ez direla aipatzen salatzen zuten bai eta “hitzarmen kolektiboari zentralismo espainiar itogarria dariola” ere. Ostiral iluntzean, eskualdeko LABeko kideek manifestazioa egin zuten Eibarren.




## Ikastolako ikasleak Espejon izan dira

Ikastolako 5. eta 6. mailako 110 ikasle eta 5 irakasle Espejoko aterpetxean 3 egun pasatzen egon dira. Valderejoko parkea, Tuesta, Gesaltza eta Angosto ezagutzeko aukera izan dute han egon diren bitartean. Egunak giro alai eta ezinhobean igarotzen dituztela esan digute.

## Herri Institutuko 12 ikaslek Ohorezko Matrikula jaso dute

Argazkian agertzen diren Herri Institutuko LOGSE batxilergoko 2. mailako 12 ikasle hauek, Ohorezko Matrikula notarekin amaitu dute ikasturtea. Ikastetxeko zuzendariak benetan pozik daude aurten hainbeste matrikula eman dituztelako. Argazkiko ikasleak honako hauek dira: tente ezkerretik hasita, Amaia Epelde, Ezekiela Arrizabalaga, Leyre Eizagirre, Nerea Larrañaga, Leyre Retolaza, Cristina Ruiz eta Elisa Castro. Eserita, Ane Guilló, Aitzol Garmendia, Nora Bastida, Amaia Gabilondo eta Amagoia Zubizarreta.



## Jarbe lantegian kokatuko da gazteen lokala Gillermo Garate alkateak eta lokalaren jabeak sinatu dute hitzarmena

*Hainbat urte iraun duen eztabaida eta ezin ulertuen ostean, azkenean lokala izango dute Elgoibarko gazteek. Joan den astelehenean Guillermo Garate alkateak prentsurrekoan azaldu zuenez, Jarbeko lokalen jabea den Irauna enpresako Jose Ignacio Bari-nagarekin akordio batera iritsi dira eta bertan kokatuko da datozen hiru urteetan gazteen lokala.*

**G**aztearen gaia kontu zaharra da Elgoibarren. Orain dela 5 urte Madalan kokatzen zen eraikuntza bota zutenetik, herriko gazteak lokal eske aritu dira etengabe. Iazko abenduaren 28an Alkortako lokalak okupatu zituen gazte talde batek eta berau behar bezala egokitu ondoren, han izan zuten Gaztetxea. Baina, Alkortako jabeak salaketa jarri eta epailearen aginduz ertzantzak desalojatu egin zuen. Kontua da, ordutik hona gaiaren inguruko urratsen norabidea aldatu egin dela.


### Gazte Batzordea

Hasteko, Udaletxean bertan Gazte Batzordea eratu zen, EAJ, EA eta HBren ordezkariekin. Batzorde honek hainbat bilera izan ditu gazte, guraso, irakasle eta beste zenbait ordezkariekin, guztien artean eztabaidatu eta adostasun batera iristeko asmoz. Alkortako lokala gustuko zuten gazteek, Madalan bertan kokatzen delako, gazteen giroa zentratzen den gunean hain justu. Baina, lokal horiek salduta omen daude eta bertan etxebizitzak eraikitzeko proiektua omen dago. Lokal hori, beraz, alde batera utzi behar izan zen.

Gillermo Garateren hitzetan,



*Pedro Muguruza kalean dago Jarbe lantegia. Bertan kokatuko da gazteen lokala. Eskuman, Guillermo Garate prentsurrekoan.*



“1996an hasi nintzen Jarbeko lokalak ikusten. Tokia aproposa zen eta metro karratu aldetik ere oso ondo dago”. Alkateak elkarrizketak hasi zituen Iraunako ordezkariekin (Jarbeko jabeak) eta aste honetan bertan sinatu dute hitzarmena. Iraunako ordezkariak prest azaldu dira lokalak erabat dohainik lagatzeko eta, hasiera batean hiru urterako sinatu den hitzarmena luzatzeko aukera egongo da. Gerora, Guillermo Garateren nahia, “zona horretan eraikiko diren eraikuntzetako batean gazteen behin-betiko lokala izango dena kokatzea da”.

### Egokitze lanak

Gazteen lokalak 500 m<sup>2</sup> izango ditu eta egokitze lanak Udaletxeko elke-

trizista eta iturginek eta Bide-Egin moduloetako ikasleek egingo dituzte. “Halere, obrak gazteen aholkuarekin egingo dira, eurak baitakite beste inork baino hobeto zer eta nola nahi duten lokala”. Asmoa, lokala San Bartolome jaietarako zabaltzea da. Seguroak ere Udalak ordainduko ditu.

Garatek azaldu zuenez, “lehen pausoa eman dugu. Aurretik, gazteen elkarten ginen guztietan lokala, beste ezer, ez zuten eskatzen. Lokala badute, espero dut aurrerantzean eurak ere jarrera positiboa agertzea eta orain arteko mesfidantza eta antagonismoak alde batera uztea”.

### CVB INFORMATIKA




**GAIK**  
Monografikoak  
Intentsiboak  
Pertsonalizatuak  
Enpresak

tel: 70 23 64 / fax: 12 01 56  
E-mail: cvb@jet.es  
Isasi, 9-1esk. 20600 EIBAR

### IKASTAROAK

Windows ingurunea  
Internet  
Kalkulo orriak  
Datu baseak  
Testuen tratamendua  
Autoedizioa  
Programazio lengoaiak



**KAROBI**  
**TABERNA**

Tel. 74 06 37  
San Frantzisko, 37

*Irune Araujok 19 urte ditu eta Ana Isabel Marínek 22. Biek batera ikasizuten Mozte eta Jantzigintza Elgoibarren eta duela 3 urte Ermuko akademia batera joan ziren Diseinua eta Moda ikasteko asmoarekin. Aurten, Bilboko erakustazokan bikote elgoibartar honen diseinu orijinalak ikusi ahal izan dira. Neska hauen helburua diseinatzea ez ezik, irakastea ere bada. Bitartean, herrian bertan bezeroak dituzte eta horiei neurrira egiten dizkiete jantziak.*

# A. ISABEL MARIN IRUNE ARAUJO

## “Edozer josteko gai izatea abantaila bat da”

**– Txikitik kopinei egingo zenizkiete jantziak, ez?**

- Ia gehienak bezala. Sobran zeuden tela zatiak hartu eta, nola edo hala josisiz, kopinentzat jantziak egiten genituen. Umetan kopinei ilea mozteko joera ere izaten duzu, denetik. Halere, biok daukagu familiar josten duenik. Etxean ikusitakoa jarraitu dugu.

**– Halere, gustatzen zaitzue, ez?**

- Bai, dudarik gabe. Asko disfrutatzen duzu gauzak diseinatzen, tela desberdinak erosi eta horiei itxura ematen eta, nola ez, baita horiek jazten ere.

**– Irudimen handia behar al da?**

- Behar da, bai. Izan ere, diseinatzea ez da praka edo gona bat egitera mugatzen. Lehenik eta behin diseinatu egin behar duzu, gauza berriak egin, tela eta kolore

desberdinak konbinatu... eta hori guztia egiteko sormena izan behar da, irudimena. Askotan, ideiarik gabe etortzen zaizu jendea, aholku eske, eta zuk bere ezau-garriak kontuan hartu behar dituzu, bere izakera, eta horren arabera diseinatu behar diozu zerbait.

**– Zuentzat ere zuek egiten al duzue erroa?**

- Ahal dugunean bai. Gertatzen dena da, batzuetan lanez gainezka egoten garela eta ez dugula astirik izaten guretzat ezer egiteko. Baina abantaila hori badaukagu, gustuko edozer egiteko gai gara. Batzuetan, gustatzen zaizkizun gauzak ez dituzu dendan aurkitzen eta guk aukera daukagu nahi duguna diseinatzeko.

**– Irailean amaitzen dituzue ikasketak.**

- Bai. Berez ekainean amaitu behar genituen bai-

na irakaslea gaixorik jarri da eta irailera arte atzeratu zaigu guztia. Bitartean, lanean jarraituko dugu.

**– Eta gero?**

- Gure asmoa akademiarren bat edo zabaltzea litzateke, nahi dutenei josten irakasteko.

**– Eta desfileak? Modak duen glamour hori?**

- Oso zaila da mundu horretan sartzea, eta diru asko behar da. Cibeles-era desfilea ikustera joatea bakarrik oso zaila da. Baina zoragarria izango litzateke diseinatzaile handien diseinuak zuzenean ikustea besterik ez bada ere.

**– Zein diseinatzaile duzue gustuko?**

- Paco Rabane bioi gustatzen zaigu asko.

**– Eta gaur egun hain modan dauden modelook?**

- Ines Sastre edo Valeria Mazza nesketan. Mutiletan, berriz, Marc, Peugeot markako kotxe anuntziokoa. Egia esan, eragin handia du modeloek soinekoa nola desfilatzen duten, zein klase eta elegantzia duten.

**– Zer suposatzen du Bilboko erakustazokan parte hartzeak?**

- Oso esperientzia positiboa izan da. Etengabean ikasten gaude, oraindik hasi baino ez gara egin. Guk gauerako diseinuak aurkeztu genituen. Epaimahaiak orijinaltasuna baloratzen zuela esan ziguten eta gurea oso orijinala zen, lentejuelaz eginkoa. Horrez gain, kortxoz edo txokolatina papelez eginkoak ere bazeuden. Gainera, Ermuan esan digute interesatuak daudela guk aurkeztutako diseinu batean disko-teketo “go-go”entzat edo. Ikusiko dugu!

### BESTEAK ESANA

“Diseinatzaile gutxi daude diseinatu, moztu, muntatu eta josteko gai direnak, Irune eta Ana Isabel bezala”  
M. TERESA GUTIERREZ (Bezeroa)



# BARREN

L.H.KO IKASLEEKIN EGINDAKO 34. GEHIGARRIA



**H**il honetan Mendaroko Ikastolako haurrei eskaini diegu TxikiBARREN. Aurrerantzean, eurak ere noizean behin protagonista izango ditugu BARRENeko orrialde urdinetan.

Argazkian Mendaroko haurrak apirilaren 22an egin zuten txangoan ikus

ditzakegu. 2. mailako umeak Azpeitin egon ziren trenaren museoa ikusten eta, ondoren, haurren museoa bisitatu eta gero, Loiolako jardinetan bazkaldu zuten. Arratsaldean Zumaiaiko portuan izan ziren eta Itzurungo hondartza eta San Telmoko ermita ere ikusi zituzten. Parkean jolasean ibili eta faroa ikusi ondoren, etxera itzuli ziren.

## *Txistea*

- Aurreratzen ari naizen diruaz -esaten du zoro batek-, motorra erosiko diat.
- Nik, berriz, -esaten dio lagunak-, behia erosiko diat.
- Barregarri egongo haiz behi gainean errepidean lasterka.
- Eta hi, motorrari esnea eraisten hasten haizenean!



# Jakitunen eskutik

## Ondo ikasteko aholkuak

**O**ndo ikasten al dut? Non eta zenbat denbora pasa behar dut ikasten? Ondo antolatzen al dut denbora?

Azterketa garaia da eta sasoi honetan galdera hauek sarri ibiltzen dira ikasleen buruan. Jarraian zenbait aholku emango ditugu ikasketen inguruko faktore garrantzitsuei buruz.

### 1.- Ikasteko tokia.

- Beti leku berdina izan behar da. Bertara ohitu eta konzentratzea errazagoa egiten da.
- Irratia, telebista eta antzeko gauzak ekidin behar dira, konzentrazioarako oso txarrak dira eta.
- Bakarrik ikatea komeni da.
- Ondo areatu eta argiztaturiko (flexo urdina) lekua izan behar da, ikasteak suposatzen duen nekea ez areagotzeko.
- Mahaia eta aulkia erosoak izan behar dira, bizkarra bertikalean eta oinak lurrean apoiatuak.
- Ikasten hasi aurretik beharrezko guztia eskura dagoela konprobatu behar da (liburuak, orriak, boligrafoak...).
- Mahai gainean ez da egon behar beharrezkoa ez den ezer.

### 2.- Denbora

- Beti ordu berean ikatea komeni da.
- Ikasteko materialaren arabera, denbora programatu egin behar da.
- Denbora arrazionalki zatitu behar da. Zenbat ordu behar ditugun kalkulatu eta



**MONTSE RUBIO**  
AHOTS LOGOPEDA

horiek behar bezala banatuz.

- Edozein arrazoiengatik ordutegia ezin bada bete, ez da obsesionatu behar eta, ahal denean, berreskuratu egin behar dira galdutako orduak.

### 3.- Puntu teknikoak

- Ikasten hasi aurretik gaia irakurri eta zeri buruzkoa den aztertu behar da.
- Ondoren, testuaren irakurketa sakonagoa egin behar da. Fase honetan testuaren ezagutza jaso eta gaiari buruzko edozein puntu testuan bilatu eta galderei erantzuteko gai izan behar dugu.
- Hobe da eskemak egitea, azpimarratzea edo laburpenak egitea dena buruz ikatea baino.
- Ikasitako gauza berriak ez ahazteko, aurrez ikasitakoarekin erlazionatzea komeni da.
  - Nekatuta sentitzean edo ikasketak zaila egiten diren unean atsedena hartu behar da, bai eta gai batetik bestera aldatzen den guztietan.
  - Zerbait ulertzen ez denean beste liburuetan begiratu edo gaiaz dakien norbaiti galdetu zalantzak argitzeko. Ulertu gabe ikasitakoa askoz errazago ahazten da.
  - Eguna amaitzerakoan programa bete baduzu, zoriondu eta sari txikiren bat egin zure buruari.
  - Alderantziz, aurrikusitakoa lortzen ez denean ez gara desanimatu behar. Hurrengo eguna hobea izango da!

## Zer iritzi daukazu .....*Elgoibarri*.....ri buruz?



Elgoibarren oso pastel onak egiten dira eta herri polita da baina Mendako politagoa da.

**MIRARI OLAIZABAL**  
7 urte



Elgoibarko herria atsegina da eta guzaki erosten leku ona da baina baztutan aparkatzeko oso zaila da.

**ZIGOR ARENILLAS**  
10 urte



Elgoibar ez zait gustatzen ez dagoelako lasaitasunik, ez dago gure herriari bezalako trankilidaderik.

**JOSU LARRANAGA**  
12 urte




**NEREA ROTETA**  
6 wtvg

## Galde debalde

- 1- Nor izan nahi zenuke?
- 2- Nora joango zinateke oporretan?
- 3- Zein arropa duzu gustukoen?
- 4- Munduko neskarik/mutilik politena?
- 5- Nolako da Amerika?
- 6- Arraina ala haragia?
- 7- Izozki bat?
- 8- Dantzarako musika?
- 9- Desio bat?

- 1- Enfermera bat.
- 2- Kanariasera.
- 3- Soinekoa.
- 4- Ikastolako Eneko.
- 5- Ez dakit.
- 6- Haragia.
- 7- Nesquik.
- 8- Bakalaoa.
- 9- Ikastolara ez etortzea eta hondartzara joatea.



**OIER**  
**ARIZMENDI**  
10 wtvg

- 1- Agustin Aranzabal.
- 2- Port Aventura-ra.
- 3- Txandala.
- 4- Pamela Anderson.
- 5- Haundixa da eta jende famatua bizi da.
- 6- Haragia.
- 7- Magnum.
- 8- Gozategi anaiak.
- 9- Errealak Bartzelonari 1.000 gol sartzia.

## Zer da... *haserrea* ?

### ZITORITZ UDAIN 7 URTE



Beste batek zirikatu egiten nauenean haserretu egiten naiz.

### EKHI UNANUE 8 URTE



Haserrea norbaitekin ados ez zaudenean gertatzen dena da.

### GOTZON ZULAIKA 7 URTE



Gurasoek eta lagunek jo eta zirikatu egiten gaituzte eta ondoren gu haserratu egiten gara.

### AITZOL UDAIN 10 URTE



Pertsona batekin borrokan edo pekatuak esaten ibiltzen bazara sentitzen duzuna.

### LOREA FLORZA 8 URTE



Norbaitekin haserretzen zarenean kabreatu egin zarela esan nahi du. Gero barkatu egin behar da.

### OIHANA LIZARDALDE 10 URTE



Norbaitek zerbait kontra egiten dizunean gertatzen dena eta partidua galtzen duzunean gertatzen dena.




# Denborapasak

## 1. Zein monumentu da?



## 2. Zer galdetu diegu?




**ANDONI LOIOLA**  
6 urte

"Neri txarangan jotzia gustatuko litzaidake eta Mendaroko txarangan soinua jotzia".

**DORLETA ARANBERRI**  
9 urte

"Spice Girls-en abestea nahiko nuke asko gustatzen zaidalako eta Victoriak abesten duen bezela oso gustuko dut".



**ERANTZUNAK:** 1.-Askatasunaren estatua  
2.-Zein musika taldeko abeslaria izan nahi zenuke?





## Francisco Arostegi Aizpurua

(1897-1970)



**G**arai batetik gaurdaino heziketa munduan aurrerapen handiak lortu direla bistakoa da. Garai hartan, Elgoibarren bertan oinarrizko heziketatik aparte, ez zegoen gauza askorik. Gaur egun, honoko hauek ditugu: Lanbide Eskola 1950ean eraikia, Batxilergo Institutua 1947an eraikia eta Erreminta Makinaren Institutua 1991ean eraikia.

Gaurko gure pertsonaiak, beste askok bezala, oinarrizko heziketak Elgoibarren egin ondoren Eibarrera jo zuen, Armeria Eskolara. Armeriakoa amaitu ondoren Suizara joan zen "Oerlikon" industri-etxera, hemen ikasitakoa, han praktikan jartzera eta, bide batez, zerbait gehiago ikastera.

Hango egonaldi luzearen ondoren eta etxeraturik, lana eta pilota izan zituen helburu. Pilota munduan, afizionatu mailan eta eskuz buruz buruko "munduko txapela" edo kanpeoi izatea lortu zuen. Gero profesional mailan ere urte askoan jokatu zuen.

Nor da Elgoibarren jaio, hazi eta bizi den pertsonaia hau?

**Testua: Felix Etxeberria**

- 1897ko urtarrilaren 1ean jaio zen San Lorentzoko Antxola baserrian.
- Sei anai-arreba ziren, berau bosgarrena.
- Gaztetan San Lorentzoko eskolan ibil zen eta, tarteka, baratze eta soroko lanak egiten zituen.
- Gazterik Eibarko "Norma" lantegira joan zen lanera, soldaduzka egin eta gero berriz tailer honetara itzultzeko.
- Josefina Angerarekin ezkondu zen eta ez zuten familiarik izan. Halere, Maria Luisa izeneko neskatila bat batu zuten, gero errekadista moduan lan pila egin zuena senarrarekin batera Elgoibartik Bilbora.
- Patxi Antxola bezala zen ezaguna denean. Gerratean egon zen bai eta Santoñako gartzelan ere. Handik bueltan tailer berdina etorri zen eta San Frantzisko kalean bodega-taberna ireki zuen, gaur egun "Lau" margoak dagoen lekuan.
- Geroago Elgoibarko tren estazioan kantina ireki zuen. Sigman hasi zen lanean jubilatuta arte.
- Kuadrilan, lagun artean, tabernetan eta kantinan batez ere, edozein motako jendea trenaren zain zegoela, barrez leheritzen izaten zituen denak.
- Gizon popularra izan zen herrian eta erbestean. Bere izaerarekin barrea eragiten zuen.
- Hamaika aldiz esaten zuen jendeak: "zenbat barre egin dugu Patxi Antxolarekin!"
- Larrialdiak pasatu zituen asmarekin eta 1970ko abenduaren 16an hil zen 73 urte zituela.

**Juanito Gorostiza**

- Kontabilitate  
- Lan  
- Fiskal



**URKIDI**  
**AHOLKULARITZA**  
**ITT ERCOS ASEGURROAK**

Kalamua 12  
ELGOIBAR  
Tel-Fax:  
74 18 91



**Bukatu S. Coop**  
Olaso industrialdea. Olasope, 66-A  
Tel.-Faxa: 74 42 54 - 20870 ELGOIBAR

**MEKANIZATUEN TAILERRA**

**Cordon, Vilarchao, c.b.**  
**DEKORAZIOA**

MOKETAK, KORTXO BARNIZATUA, PVC ETA PARETAK,  
SINTASOLA, ZOLU INDUSTRIALAK, GORTINA BERTIKALAK,  
GOTELE ERROTULAZIOA, PINTURA OROKORRA.

San Roke, 7 behe. Tel. 74 28 74 - 74 05 70

**BOUTIQUE DEL PAN**

Enpanadak      Enbutidoak  
Baserriko ogia      Bolleria

San Bartolome, 6 / B. Ecenarro, 1 ☎ 74 33 92



Aste honetako erretratua San Pedroko idi-probetarako prestatutako lekuan aterata dago. 1961 ingurukoa da argazkia, kuadrilako bazkari baten aitzakian ateratakoa. **Jose Luis Belloso** apaiza meza ematera joan zen eta kuadrilako guztiekin batera agertzen da argazkian.

Izen-abizenen zerrenda atzetik hasita emango dugu, ezkerretik esku-

mara:

Atzean, **Jose Luis Belloso, Juanito Gabilondo, Agustin Gorostiza, Jaime Arrese, Daniel Lasa** eta ezezaguna.

Bigarren ilaran, **J.L. Zubiaurre (†), Jose Galarraga** zahatoa eskuan duena, **Pedro F. Jauregi** edaten ari dena, **Jesus Mari Arrillaga** San Pedro jatetxeko mutikoa, **Jesus Etxabe** eta **Santi Retolaza**. Eskuman bera bakarrik eserita dagoena **Jose Antonio Ansola** da.

Aurrean eserita dauden hirurak: **Jose Idigoras, Jose Oñederra** eta **Agustin Iriondo**.

Pedro Muguruza 5  
Tel 74 08 06  
20870 ELGOIBAR



**JAKIN**



Informatika

Klase partikularrak

Kontu eta merkatal gestioa

TALDE MURRIZTUAK  
KLASEAK GOIZEZ ETA ARRATSALDEZ

Errosario, 25- 1 esk.  
Tel: 74 08 95  
ELGOIBAR

Santalaitz, 4  
Tel: 76 00 68  
BERGARA

# Eskolarteko Jokoak

**A**maitu dira Eskolarteko Jokoak eta saskibaloian, areto futbolean eta eskubaloian garaile izan diren taldeek joan den larunbat eguerdian jaso zituzten sariak Gotzon Arrieta kirol zinegotziaren eskutik. Alebin eta infantil mailako talde irabazleei banan banan atera genien erretratua eta benjaminak denak batera. Hona hemen argazkiak eta taldeen izenak.

## B e N J a M i N A k



## I n F a N t i L A k

- **Ikas Urdin.** Areto Futbolean txapeldun geratu dira.
- **Pilar Boys.** Saskibaloiko txapeldunak dira.
- **Ipurterreak.** Eskubaloian txapeldunak dira.
- **Ikas Katxondak.** Txapeldunak areto futbolean eta eskubaloian.
- **Peña Insti.** Saskibaloiko txapeldunak dira.

### IPURTERREAK



### IKAS URDIN



### IKAS KATXONDAK



### PILAR BOYS



### PENA INSTI




# A L e b i N a K

- **Pilar Ajax.** Areto futboleantxapeldunak.
- **Herri Manchester.** Saskibaloiantxapeldunak.
- **Ikas Otsokoak.** Eskubaloiantalde txapelduna izan da.
- **Ikas Beder.** Areto futboleant eta esku-baloiantxapeldunak.
- **Ikas Sei.** Saskibaloiko txapeldunak dira.



PILAR AJAX



IKAS OTSOKOAK



IKAS BEDER



HERRI MANCHESTER




IKAS SEI

## Esther Idiakez, Gipuzkoako Eskolarteko Gimnasia Erritmikoko txapeldunordea

Maiatzaren 31n, Hernanin jokatu zen Gipuzkoako infantilen Gimnasia Erritmikoko Eskolarteko txapelketan, Ibai Elkarteko Esther Idiakezek bigarren postuan amaitu zuen txapelketa. Estherrek 13 urte ditu eta duela urte eta erdi hasi zen kirol hau egiten, eta gaur egun judoa eta biak egiten ditu. Hortaz, urte eta erdiko epean, Gipuzkoako bigarrena izatea lortu du. Estherrekin batera, Carmen Lendinez ere sailkatu zen banakako soka atalean. Gaztetxo honek puntuaketa altua izan bazuen ere, ezin izan zuen podiumera igo. Domekan, hilak

15, Estherrek Donostiako Gimnasia Erritmikoko Euskadiko Txapelketan parte hartuko du.



Esther Idiakez aroarekin ariketa bat egiten.

### EMAITZAK

#### Futbola

Fraga 1 - Haundi 2

#### Sigmako Pilota Txapelketa

Karmelo/Balzola 14 -  
Ansola/Zubizarreta 22  
Berza/Loidi 0 - Olaso/Lazarobeitia 22  
Txurruka/Lejaristi 22 - Olabe/Angel 9

#### I. Tenis Txapelketa

Nicolas Berbel - Gorka Merino 6/2 eta 6/3  
Abel Hernández - Fernando Rico 6/0 eta 6/0

#### I. Pala Txapelketa

Rodolfo Rico/Elkoro 35 -  
Fernando Rico/Aranegi 30  
Martin Urigoitia/Mancebo 35 -  
Aitor Bergua/Jon Gurrutxaga 32

#### Pilota Lagunak Txapelketa

##### Banaka:

Iñigo Garai 18 - Andoni Gómez 6 (Benj.)

Azpiazu 18 - Membrillera 17 (Aleb.)  
Rodríguez 1 - gasteain 18 (Aleb.)  
Loiola 14 - Bernedo 18 (Inf.)

##### Binaka:

Elgoibar A 18 - Azpeitia B 5  
Elgoibar B 18 - Zaldibia 14

### AGENDA

#### Sigmako Pilota Txapelketa

##### Astearte, 17

19:30 Garate/Gerrika -  
Txurruka/Lejaristi  
Olabe/Angel - Loiola/Lazarobeitia

##### Osteguna, 19

19:30 Panizo/Julian -  
Perea/Arrillaga  
Lendinez/Osoro -  
Ibarluzea/Iparragirre

#### Lagunak Pilota Txapelketa

##### Igandea, 15

##### Binaka:

10:00 Azpeitia - Zaldibia  
Lizartza - Azpeitia B

#### I. Tenis Txapelketa, IMHn

##### Larunbata, 14

##### Finala:

12:00 Nicolas Berbel - Abel Hernández

#### Futbito, Kiroldegian

##### Igandea, 15

##### Kopako finala:

11:00 Menisco - S. Braga

##### Ligako finala

12:00 Karkis - Orbela

## ● Mintxetako Futbol 7 txapelketa

Ekainaren 21etik uztailaren 20ra bitartean jokatu da Mintxetako Futbol 7 txapelketa. Talde bakoitzak nahi adina jokalaria izan ditzake eta taldeko 6.500 pta. ordaindu behar da izena ematerakoan. Zeregin horretarako Kiroldegitik pasatu edo telefonoz deitu 74 44 15/74 43 15 zenbakietara, hil honen 14an beranduenez. Partiduak Mintxetan jokatu dira. Iaz 38 taldek hartu zuen parte. Bai iaz bai orain dela bi urte, Debako Xare taldeak irabazi zuen txapelketa.

## ● Surf-a eta multiabentura, Udako kirol kanpainan

Udal Kirol Patronatuak urtero antolatzen duen Udako Kirola Kanpainan, ohi-ko kirolez aparte, surf-a, piragua, karate, yoga bai eta multiabentura delako irteerak ere egiteko aukera izango da. Ekainaren 23tik uztailaren 25era bitartean luzatuko da kanpaina eta izena emateko epea hil honen 18ra bitartekoa da. Eskaintzen diren kirolak 15 dira: tenisa, patinaia, igeriketa, buzea, mendiko bizikleta eta lehenago aipatutakoak. Adinaren arabera haurren, helduen eta jubilatuen taldeak osatuko dira. Multiabenturaren barruan Oñatiko haitzuloetara irteera, Atxarten eskalada, puenting-a Oñatin eta kainoi jaitiera Arabara irteerak izango dira. Bazkide direnek beharpena izango dute izena ematerakoan.

## Sanmigeldarrak Gipuzkoako bolo txapeldunak dira taldeka, banaka eta binaka

**D**uela bi asteburu Gipuzkoako Bolo Txapelketaren sari banaketa ekitaldia izan zen Aramaio Unzillako auzoan. Elgoibartarrak protagonista izan ziren ekitaldian, hiru txapel baitzegokien jasotzea San Migeleko bolarietara. Taldeka, San Migeleko taldeak txapeldunak eta txapeldunordeak izan ziren. Binaka, Inazio Kortaberria eta Julian Loiolak osatutako bikotea lehena izan zen eta bigarrenak, Jose Mari Azpiazu eta Jose Maria Arrilaga. Banaka ere, elgoibartarrak nagusi izan ziren. Lehen postuan Julian Loiola sailkatu zen. Bigarrenean Angel Ibarluzea; laugarrenean Jabier Osoro eta bosgarrenean Jose Mari Azpiazu. Sari banaketarako ezezik, omenaldietarako beta ere izan zen Aramaion. Bi bolari izan ziren omenaldia jaso zutenak: bata, Elgoibarren jaio eta Eibarren bizi den Faustino Lazkano eta bestea, Sorluzen jaio baina Elgoibarren bizi den Sabin Oregi.



*Sanmigeldarrak omenaldiko protagonistak izan ziren.*

## Rico eta Elkoro eibartarrak izan dira I. Pala Txapelketako irabazleak

Larunbat eguerdian jokatu dira teniseko finalak

**J**oan den ostiral gauean jokatu zen Ikastolako frontoian Udal Kirol Patronatuak antolatutako I. Pala txapelketako finala. Rodolfo Rico eta Elkorok osatutako bikoteak batetik, eta Fernando Rico eta Patxi Aranegi bikoteak bestetik, jokatu zuten finala. Azkenean Rodolfo Rico eta Elkoro nagusitu ziren, 35 eta 16. Eibartarren arteko norgehiagoka izan zen final hau, elgoibartarrek ez baitzuten finalera heltzerik izan. Hirugarren eta laugarren postuetan sailkatu ziren elgoibartarrak.

### SAILKAPENA:

- 1- Rodolfo Rico eta Elkoro
- 2- Fernando Rico eta P. Aranegi
- 3- Martin Urigoitia eta Mancebo
- 4- Aitor Bergua eta Jon Gurrutxaga

Kirol Patronatuko zuzendariaren hitzetan, "partaidetza kaxkar xamarra izan da, 7 bikotek besterik ez baitu parte hartu;

hauetatik 5 bikote elgoibartarrak izan dira eta 2 eibartarrak".

### Berbel eta Hernandez, tesniseko finalean

I. Tenis Txapelketaren azken partidua, bihar, hilak 14, eguerdiko 12etan jokatu da IMHko Udal Tenis Pistan. Nicolas Berbel beterranoa eta Abel Henández 15 urteko gaztea arituko dira aurrez aurre txapelaren bila. Sari banaketa eguerdiko 1ak aldera izango da. Txapelketa honetan 11 lagunek hartu du parte, elgoibartarrak eta eibartarrak tartean.




## Ongarri Zine Klubak agur esan du datorren urrira arte

*Ongarriko kideek zine klubeko azken filmea eskaini zuten maiatzaren 29an, Talde Antimilitaristak antolatutako Antimilitarismoaren Astean. Azken pelikula honekin 24 dira urtean zehar eskaini dituzten filmak, 36 emanaldi ezberdinetan banatuak. Oraingoz eten egingo dira emanaldiak eta urrian berri izuliko dira zirkuito komertzialetik kanpoko pelikulekin. Lehen urteko esperientzia honi buruzko balorazioa kaleratu dute Ongarrikoek.*

**H**ileko ostegun eta ostiral gau gehienak, zine klubaren gauak izan dira Elgoibarren. Filmeen proiektio soilak ezezik, herriko hainbat kolektiborekin elkarlanean saio ezberdinak antolatu dituzte. Aipatzeko modukoak dira Diego Galan Donostiako Zinemaldiko zuzendaria zine kluba inauguratu zen egunean Elgoibarren izan zela; baita Haizea Emakume Taldearekin elkarlanean, Itziar Fernández Emakundeko idazkaria ere etorri zela. Honez gain, Korrikaren bueltan, Arantxa Lazkano zinemagile euskalduna Herriko Antzokian izan zen. Euskal Herri mailako estrenaldiak dagokienean, Aste Antimilitaristaren barruan “Anabasa eremua” filmea estrainekoz eman zen antzoki batean.

Ikuslego kopuruaren aldetik “asistentzia interesantea” izan den iritzikoak dira zine klubekoak. “Udalaren diru-la-



**Diego Galan, Donostiako zinemaldiko zuzendariak zine kluba inauguratu zuen.**

guntzari esker produktua amortizatzea lortu dugu”.

Ongarri Zine Klubak eman dituen pelikula guztiak zine komertzialean ikusterik ez dauden filmak dira. Hauen artean kalitate handiko filmak egon izan dira, “El funeral”, “Tesis”, “Fargo” eta beste asko. Holliwood-eko produkzio handiak alde batera utzita, EEBBetan egindako zine independentea ikusi ahal izan da bai eta Mexican, Hong-Kong-en, Brasilen, Italian, Frantzian,

Portugalen, Espainian, Belgikan, Holandan eta Iranen egindakoak ere. Zine Klubeko kideen esanetan, “europar zinea nagusi izan da, zine komertzialetan lekuri ez duena. Gure asmoa Elgoibarko zine komertzialaren osagarri izatea da, filmeen eskaintza hobetuz. 600.000 pta.ko aurrekontua izateak dituen mugak, proiektio egunak gutxi izan direla eta pelikulak hautatzerakoan izan ditugun hutsegiteak alde batera utzita, lan interesantea egin dugula uste dugu”.



**Ongarri taldekoak zine-klubaren inaugurazio egunean.**

# 20 R I 2 L

**S**aile berri honen lehenengo artikuluan bi diska komentatuko ditugu, “Jon Speencer Blues Explosion” taldearenak, alegia. Estatu Batuetatik datorkigun hirukote honek, bost diska argitaratu ditu dagoeneko, baina guk azken bi diskei helduko diegu: “Orange” (1994) eta “Now I got worry” (1996).

### ORANGE

Diska ikaragarri baten aurrean gaude, zilar koloreko azal baten azpian Blues-a, Funky-a, Soul-a eta azken hamarkadako rock-a nahasten dituen diska aurki dezakegu. Elvis, James Brown eta antzinako Blues-ean asko sakondu duen taldea dugu hau. “Bellbottoms” lehen abestitik “Greyhound” azken abestiraino, erritmo biziz igarotzen ditu 13 abestiak. Diska biribil-biribila lortu dute (Matador Records)

### NOW I GOT WORRY

Argitaratu duten azken diska dugu. Zorionez, goian esandakoa mantentzen da, beraz, beste diska “esplosibo” baten aurrean gaudela esan genezake. Desberdintasunak, erritmo biziagoak eta freskoagoak dira. Rufus Thomas bluesman-ak “Chicken Dog” kanta abestea lortu duen talde baten aurrean, txapela kentzea besterik ez zaigu falta. Zuzenean, idem, itzela...

**I. eta J.**

INTERESEKO

**OSASUNA**

Anbulategia:  
 Larrialdiak . . . . . 461111  
 Txanda hartzeko 743354  
 Planning-a . . . . . 742950  
 Alkoholiko Anonimoak 740385  
 D.Y.A (anbulantzia) . . 464622  
 Gurutze Gorria . . . 743864  
 Mendaroko Ospitalea. 756264  
 Odol Emaileak . . . 743936

**GARRAIOAK**

Eusko Trenbideak. 740442  
 PESA (Eibar)902 10 12 10  
 Taxi geltokia . . . . . 740898

**UDALA**

Euskara Zerbitzua 744366  
 Udal Kirol Patronatua  
 744415  
 Kultura Zerbitzua . 742158  
 Mendaroko Udala. 756100  
 Ongizate zerbitzua 741008  
 Udaletxea . . . . . 741050  
 Udaltzaingoa . . . . . 741394

**BESTELAKOAK**

Elgoibarko Izarra . 741626  
 Kiroldegia . . . . . 744415  
 Kontsumo Bulegoa 743088  
 Liburutegia . . . . . 743525  
 Musika Eskola . . . 742145  
 Mintxeta . . . . . 744315  
 Parrokia . . . . . 740842  
 Postetxea . . . . . 741547

**HIRUGARREN ADINA**

San Lazaro Egoitza740296  
 Zaharren Biltokia . 740526

**IKASTETXEAK**

Haur Eskola . . . . 74 21 41  
 Herri Eskola . . . . 74 08 79  
 I.M.H. . . . . . 74 41 32  
 Herri Institutua  
 Arreiturre . . . . . 74 02 67  
 Ezenarro (Meka)74 44 80  
 Ikastola . . . . . 74 44 41  
 L.H.I. . . . . . 74 44 80  
 Pilar Ikastetxea. . 74 13 31

**KOMUNIKABIDEAK**

BARREN . . . . . 74 41 12  
 El Diario Vasco . 74 40 73  
 El Correo Español74 10 82  
 Egin . . . . . 10 84 21

**13**  
ostirala

22:15 ZINEA  
 "El Santo"

**14**  
larunbata

10:00 GURASOEN  
EGUNA  
Ikastolan

11:30 ZAZPIKIREN  
BILERA  
Ganbaran

17:00 GURUTZE  
GORRIKO ASTIALDI  
TALDEAREN  
JAIALDIA  
Gurutze Gorriaren  
egoitzan

19:30-22 15 ZINEA  
 "El Santo"

**15**  
igandea

11:30  
SANMIGELDARREN  
EGUNA  
Meza, pilota partiduak eta  
bazkaria  
San Migel auzoan

16:30-19:30-22:15  
ZINEA  
 "El Santo"

18:30 DANTZALDIA  
GELATXOREKIN  
Plaza Handian

**16**  
astelehena

22:15 ZINEA  
 "El Santo"

**19**  
osteguna

19:30 HITZALDIA  
 Gaia: Pisu kontuak  
 Hizlaria: Almudena Pérez  
 Antolatzailea: Haizea  
 Emakume Taldea

**20**  
ostirala

22:15 ANTZERKIA  
 "Ondoez Klownikoak"  
 Antzezlea: Virginia Imaz  
 Herriko Antzokian  
 Antolatzailea: Haizea  
 Emakume Taldea

ZIN



Zuzendaria: Phillip Noice  
 Antzezleak: Val Kilmer, Elisabeth  
 Shue, Rade Serbedzija

**El Santo**

"El Santo" fikziozko pertsonaian oinarritutako thriller gaurkotua da. Simon Templar, "El Santo", industrial erruso batek kontratatzen du mugagabeko energia lortzeko formula zientifikoa lapur dezan. Simon Templar-ek formularen egilea ezagutuko du. Bera emakume liluragarria dela ikusten du eta maitemindu egiten dira.



● Gurutze Gorriko Astialdi Taldearen Jaialdia

Larunbatean, hilak 14, Gurutze Gorriko Astialdi taldeak ikasturte amaierako jaialdia egingo du arratsaldeko 5etatik aurrera Gurutze Gorriak Aita Agirre plazan duen egoitzan. Jokoak, merienda, musika eta dantzaldia antolatu dituzte arratsaldea pasatzeko eta guraso eta haur guztiei dei egiten diete bertara agertzeko.

TXAN-  
DAK

FARMAZIAK

Egunez Gauez

- 14 Yudego\* Zabaleta
- 15 Yudego\* Zabaleta
- 16 Yudego Yudego
- 17 Bidasolo Anduaga
- 18 Etxeberria Zabaleta
- 19 Yudego Anduaga
- 20 Etxeberria Etxeberria


\*(eguerdiko 2ak arte)

ANDUAGA:

Mendarozabal, 1  
Garagarza. Tel: 75 61 42

● Sanmigeldarren eguna

Igandean, hilak 15, San Migel auzokoek euren eguna ospatuko dute. Egunean zehar Zuhaitz Gurrutxaga, 16 urtetik beherako Europako futbol txapelkunaren garaipena ospatuko dute. Goizeko 11:30etan meza izango da eta ondoren salda eta txorizoa banatuko dute. Eguerdian San Migeleko IV. Banakako Esku Pilota Txapelketaren azken partidua jokatu da. Segidan auzotarrak bazkari baten bueltan elkartuko dira eta erromeria izango dute Zabaleta eta Imanol trikitilariekin. Ekitaldian zehar Zuhaitz Gurrutxaga futbolari gaztearen garaipena ospatuko dute. Arratsaldeko 7etan auzoko gaztetxoek antolatutako ibilaldirako oterra zozketatuko da.



● Gurasoen Eguna Ikastolan

Bihar, hilak 14, Gurasoen Eguna ospatuko dute Ikastolakoek. Irakasle, guraso, ikasle bai eta ikasle ohiak ere Ikastolan elkartuko dira goizean goizetik egun osoko jaiari hasiera emateko. Goizean eta arratsaldean jolasak, lehiaketak, etab. izango dira guraso, irakasle eta ikasleentzat. Eguerdian nahi duen guztiak bazkaltzera geratzeko aukera izango du. Arratsaldean kirol aipamenak eta musika saioa izango dira. Jaia iluntzerarte luzatuko da.

**HONEKIN GATOZ!!!**

**ITALIA**

HOTELAK - 3 eta 4★  
8 egun **93.900 pta.**

**PARIS, RHIN eta HERBEHEREAK**

HOTELAK - 2, 3 eta 4★  
8 egun **85.900 pta.**

**INGALATERRA eta ESKOZIA**

HOTELAK - 3 eta 4★  
8 egun **115.900 pta.**

**BUDAPEST eta PRAGA**

HOTELAK - 3 eta 4★  
8 egun **89.900 pta.**

**PRAGA, VIENA eta BUDAPEST**

HOTELAK - 3 eta 4★  
8 egun **93.900 pta.**

**OSLO, FIORDOAK eta GLAZIARRAK**

HOTELAK - 3 eta 4★  
8 egun **138.500 pta.**

**ESKANDINABIA**

HOTELAK - 3 eta 4★  
10 egun **159.900 pta.**

**ISTANBUL eta KAPADOZIA**

HOTELAK - 3 eta 4★  
8 egun **86.900 pta.**

**MOSKU ETA SAN PETERSBURGO**

HOTELAK - 4★  
7/8 egun **119.800 pta.**

**EL CAIRO eta NILOAN ZEHAR KRUZEROA**

I. MAILAKO eta ERDI-LUXUZKO HOTELAK  
8 egun **139.400 pta.**

**GURE DETALEAK:**

- BIDAIA ASEGURUA
- EZKONGAIENTZAKO OPARIA
- 3. ADINEKOENTZAKO BEHERAPENAK
- HIRUKO GELETAN BEHERAPENAK
- UMEENTZAKO BEREZIAK
- SALNEURRI GARANTIZATUAK
- IRTEERA GARANTIZATUAK
- BILBAO -EXPRESSEN ESKEINTZA BAT DA**

**Dudarik gabe, hemendik aurrera, zatoz gure bulegora:**



VIAJES **BILBAO EXPRESS** BIDAIAK


Foruen Plaza, 3 Elgoibar  
Tel: 74 39 12

DEBABA

EUSKARA DENONTZAT...DENERA-

Matrikula zabalik ekainaren 25erarte

EGA IKASTARO BERE-



UDAL EUSKALTEGIEN

Elgoibar: Nafarroa enparantza, 2 Tel: 74 27 31  
Deba: Ifar-kale, 12 Tel: 19 22 36  
Mutriku: Txurruka enparantza, 1 Tel: 60 30 94

## Salerosketak

### ◆ SALDU ◆

- ◆ Seat Malaga 1S GL BI-41 57 AW salgai. ☎ 19 51 04 (Marcel)
- ◆ Yamaha XJ-900 motorra salgai (13.000 km.). Egoera ezinhobearen eta merke. ☎ 75 62 39/75 61 80 (20:00etatik aurrera)
- ◆ Merkatuko plazan liburutegikioskoa traspasatzen dut. ☎ 74 25 17 (Amaia)
- ◆ Aukera interesgarria: Benecchi Superligera eskopeta saltzen da. Oso ondo zainduta dago. Bi urteko garantia eta estrak. ☎ 74 03 92 (Dani)
- ◆ Peugeot SRD salgai. Merkea. Honda 500 VFR motorra (berria). ☎ 907 84 40 54 (Unai)
- ◆ Poliesterrezko Yamaha itsasuntzia salgai. 4 zaldiko motorra. 4,50ko luzera eta 1,50ko manga. ☎ 19 13 07
- ◆ Opel Kadet diesela saltzen dut. 150.000 pta. Tel: ☎ 74 23 67

## Etxebizitzak

- ◆ Pisua daukat alokatzeko irailetik aurrera San Frantzisko kalean. Irakasleentzat aproposa. ☎ 74 34 24
- ◆ Alcoceber-en apartamentua alokatzten da uztaile eta irailean. ☎ 74 22 08
- ◆ Torreveijan apartamentua alokatzten dut. (Ekaina eta iraila). ☎ 74 24 50
- ◆ Bungalow-a alokatzten dut Santa Polan udan, uztailean izan ezik. ☎ 74 12 13 (Carmen, gaeuz)
- ◆ Jakan apartamentua alokatzten da. (Membrilleras-en) ☎ 74 20 31
- ◆ Benidorm-en apartamentua alogeran. Hondartzako lehen ilaran. ☎ 74 20 31
- ◆ 3 logelako eta amoblatua dagoen etxe bat alokatu nahi da, irailetik aurrera. ☎ 72 20 03 (Ainhua. Asteburuetan deitu)

## Garajeak

- ◆ Trenbide kalean garajea salgai. Oso handia da, erullota edo bi kotxe sartzeko beste. Sobrepisoa dauka. ☎ 74 01 33
- ◆ Urasandin garaje itxia saltzen da. ☎ 74 08 63
- ◆ Garaje itxia salgai Arregitorren. ☎ 75 51 77
- ◆ Urasandin garajea dut alokatzeko. Marraduna. ☎ 74 31 07

## Lana

### ◆ ESKAERA ◆

- ◆ Neska bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko edo umeak zaintzeko. Esperientziaduna eta euskararekin. ☎ 19 21 28 (Asun, asteburuetan)
- ◆ Neska eskaintzen da umeak zaindu edo bestelako lanak egiteko. ☎ 74 18 68
- ◆ Ileapaintzaile titulodun neska eskaintzen da umeak zaintzeko. ☎ 74 22 91 (Cristina)
- ◆ Neska batek haurrak eta etxeko-lanak egingo lituzke. Euskalduna eta esperientziarekin. ☎ 74 31 88 (Amaia. Goizez)
- ◆ 18 urteko neska sukaldeko lanak edo garbitasuna egingo luke. ☎ 74 36 38 (Arantza)
- ◆ Umeak zainduko nituzke egun osoan edo orduka. Neska euskalduna esperientziarekin. ☎ 74 34 99 (Eulali)

## Partikularrak

- ◆ Fisika eta matematika klase partikularrak ematen ditut. ☎ 74 13 34 (Andoni)
- ◆ Frantses klaseak ematen ditut. Ikastaro trinkoa uztailean. ☎ 74 04 59
- ◆ LOGSE batxillegoko marrazketa eta arkitektura eta injinerutza has-teko oinarriko marrazketa eman-gotut uztailean. ☎ 74 03 74
- ◆ Euskarazko eta Lehen Hezkuntzako partikularrak ematen dira. Talde txikiak. ☎ 74 09 72 (Garikoitz)
- ◆ Matematika, kontabilitatea, praktika administratiboak, kosteen kontabilitatea eta abarri buruzko klase partikularrak ematen ditut. Maila guztiak eta talde mugatuak. Esperientzia dut. ☎ 74 21 65 (Javi)

## Bestelakoak


- ◆ Lorito berde batek ihes egin digu S. Inazio eta A. Arrillaga kalean artean. Sarituko da. ☎ 74 36 07
- ◆ Santa Ana kaleko eta Aita Agirre plazako aparkalekuen artean betaurrekoak galdu nituen larunbat gaeuan. Norbaitek topatu baditu, deitu. ☎ 74 36 73 (Bego)
- ◆ San Frantzisko iturrian ume baten txaketa urdin bat topatu nuen duela bi aste. Udaltzaingora eramantut. ☎ 74 31 07
- ◆ Gonak josten dira beste bat neurriarri ekarrita. ☎ 74 21 40

## Agurrak

- ◆ Ongi etorri **Mohamed Ali**. Badakigu Tangerren ederki pasa zuzula. Orain egunerokoari heldu behar.
- ◆ Zorionak **Alazne** eta musu handi bat. Eduardo Herrera.
- ◆ 10 tirakada **Maitane Blancori** hilaren 10ean urteak bete zituelako ikastolako 4. mailakoen partez. Ondo pasa maspasa. Zorionak 4. mailako mutilen partez.
- ◆ Zorionak **Yolanda Arandari** hilaren 6an 13 urte bete zituelako. Adrian eta Asierren partez.
- ◆ Zorionak **Estibaliz Morenori** 9 urte bete zituelako. Sara Gurrutxaga eta Ana Arrillagaren partez.
- ◆ **Amaia Saenz Elizondori** zorionak hilaren 14an 11 urte beteko dituelako. Osaba, amama, aitona eta gurasoen partez. Zorionak bere lagun batzuen partez. Nor ote?
- ◆ Zorionak **Leire Alvarez** gaur, hilak 13, urteak bete dituelako. 11 tipulakada. Zure lagun misterio-tsuen partez. Zorionak "Mini baby".




◆ Mila kilo zorion **Kimetz** ekainaren 14an 9 urte beteko dituzulako, etxeko guztien partez.



◆ **Maria Luisari**, Herri Eskolako 3. mailakoen partez:  
◆ "Elgoibarko guraso/ikasle eta irakasle/gogoan izanen dugu/zure ondoan pasatu diren/hainbat egun on/motel eta eder/ezinezkoa zaigu ahaztea/zure izena, **M. Luisa**."



◆ Zorionak **Oihana Chicori**, bihar, hilak 14, 15 urte beteko dituelako. Guraso eta anaia Adrianen partez.



◆ **Sara Iriondori** zorionak, atzo, osteguna, 6 urte bete zituelako. Hasier, Ion, Andoni, lagun eta gurasoen partez.



◆ Zorionak **Elena Larizi** familiarren partez hilaren 12an 3 urte bete zituelako.

## Agurrak




◆ Zorionak **Amaia** bihar urteak beteko dituelako. Nerea, Miren eta Maite-ren partez.



◆ Zorionak **Ane Astigarragari** hilaren 12an 6 urte bete zituelako. Etxeko en partez.



◆ Zorionak **Arrate Faurori** hilaren 11n urteak bete zituelako. Fran, Mireia eta senarraren partez. Musu handi bat.




◆ Zorionak **Fran Huidobrori** 17 urte egin zituelako hilaren 11n. Guraso eta arrebaren partez.



◆ Zorionak **Dorleta Loiolari**, hilaren 15ean 11 urte egingo dituzulako. Etxeko en partez. Zorionak beste batuzulako. Norren partez?



◆ 10 bilioi zorion **Joanesi** ekainaren 11n urteak betetzea-gatik. Etxeko guztien partez. Zorionak lagun baten partez.



◆ **Jon Ander Avilari** ekainaren 15ean 6 urte egingo dituelako, zorionak eta musu handi bat Veronica eta Ivonek. Ama, anaia Gorka eta zure

ahizpa Mariaren partez zorionak. Lagunen partez, Donete, Sally eta Lucas. Asko maite zaitut, Ana. Nire kopiloto onenari muxu asko, Josu.

◆ Zorionak **Amaia Ovejerori** atzo 19 urte bete zituelako. Familiakoak.

# EGIOZU KOLPE

**EITEK**ekin

Interneteko

Konektatzeko aukerarik onena!!!

**LOTURA**

kit-a

Interneterako dohaineko konexioa hilebete batez.

Lan tresna hauek ere badauzka:

- Netmeeting
- Internet Explorer
- Internet News
- Internet Mail



**EITEK**


Paciano Arosa, 1  
20600 EIBAR

Tel: 943 20 30 90

Fax: 943 20 42 49

E-Mail: eitek@futurnet.es

Prezioa: 5000 pta.



## Ikastaro intentsiboak 97ko uztailean

INGELESA, ALEMANA ETA

- Talde murriztuak, bakoitzaren premiei egokituak
- Hizkuntza laborategia: bideo, ordenagailu eta audio teknikak
- Jatorrizko irakasleak
- Asistentzia eta maila agiria
- Enpresentzako dirulaguntza aukera, FORCEMen bidez



Maila egiaztatu eta izena



**Noiz:**

Uztailaren 1etik 24ra arte

**Iraupena:** 45 ordu (2 ordu eta erdi egunero)

**Ordutegia:** astelehenetik ostiralera, goizez

**Maila:** eskaeraren arabera

**Izen-ematea:** ekainaren 20ra

# INTERNET



DANKA MULTIMEDIA:

TEL: (943) 71 20 51

FAX: (943) 71 21 82

E-MAIL: [danka@danka.es](mailto:danka@danka.es)

INTERNET: [www.danka.es](http://www.danka.es)

Doitu eta...

informatuko zaitugu.

"PYMES INTERNET"

- [www."zure-enpresa".com](http://www.) Domeinuaren Erreserba
- Zure enpresarentzako 5 e-mail buzoi pertsonalizatu:  
(Adib: [gerentea@zure\\_enpresa.com](mailto:gerentea@zure_enpresa.com), [salmentak@zure\\_enpresa.com](mailto:salmentak@zure_enpresa.com)...)
- Zure Web orrialdeentzako 20 Mbyte-eko espazioa
- Zure Web Orrialde Printzipalaren diseinua
- FTP pribatuko kontua
- Zure Domeinuan sartzeko diren estatistika  
(herrialdeka, orrialdeka...)
- Zure Web Orrialde Printzipaleko bisitarien kontagailua
- Zure Domeinuaren alta ematea 300 Bilaketa-Motoretan  
(yahoo, ole, altavista...)
- Internetera konexio bat RDSI edo telefono bidez

